



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

DIRULAGUNTZEN 2023KO PLAN ESTRATEGIKOA

LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZA

Osoko bilkura:

Alba Urresola Clavero, presidentea

Rafael Iturriaga Nieva, batzordekidea

Enara Venturini Álvarez, batzordekidea

Ainara Herce San Martín, idazkaria

Lehiaren Euskal Agintaritza (LEA), aipatutako ordezkariak bertaratuta, 2023ko urtarrilaren 27an bildu zen, Lehiaren Euskal Agintaritzaren 2023ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzeko.



AURKIBIDEA:

I. EGITEZKO AURREKARIAK	3
II. ERABAKITZEN DU.....	4
ERANSKINA	4



I. EGITEZKO AURREKARIAK

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8.1 artikulua arabera, «dirulaguntzak ematea proposatzen duten administrazio publikoetako organoek edo erakunde guztiek, aldez aurretik, dirulaguntzen plan estrategiko batean zehaztu behar dituzte haien bidez lortu nahi dituzten helburu eta ondorioak, helburuok lortzeko epea, aurreikusten diren kostuak eta finantzaketa-iturriak, betiere aurrekontu-egonkortasunaren helburuei jarraituz».

Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko otsailaren 2ko 1/2012 Legearen bidez sortu zen Lehiaren Euskal Agintaritza, administrazio erakunde autonomo gisa, ekonomia-politikaren eta lehiaren defentsaren ardura duen Eusko Jaurlaritzako sailari atxikia, eta esleitu zaizkion eginkizunak betetzeko berezko nortasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoarekin.

Lehiaren Euskal Agintaritzaren helburu orokorra merkatuko lehia askearen eta gardentasunaren baldintzak sustatu, bermatu eta hobetzea da, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren jardura ekonomikoetara dagokienez. Horretarako, zenbait eskumen baliatuko ditu, hain zuzen ere, zehatzeko, sustatzeko, aurkaratzeko, irizpenak emateko, kontsultatzeko eta arbitratzeko eskumenak.

LEAren 2023ko Ekintza Planak erakundearen helburuen artean jasotzen du profesional gazteekiko konpromisoa sendotzea, bai praktikak egiteko programaren bitartez, bai prestakuntzako eta ikaskuntzako aukerak eskainiz.

Jardura horiek helburuak lortzeko eraginkorrak direla egiaztatu da, eta, orobat, Lehiaren Euskal Agintaritzak instituzio akademiko nahiz graduondoko ikasleen aldetik jasotako eskaerei emandako erantzuna dira.

2022ko ekitaldian, LEAk prestakuntza-beken deialdi publikoa egin zuen bigarren aldiz, Lehiaren Euskal Agintaritzaren jardura-esparruko prestakuntza-beken oinarriak eta deialdia publiko egiteko Lehiaren Euskal Agintaritzako lehendakariaren 2022ko irailaren 26ko Ebazpenaren bidez.

Bost eskaera jaso ziren, eta, hautaketa-prozesuari buru emateko, Lehiaren Euskal Agintaritzako lehendakariaren 2022ko azaroaren 30eko Ebazpena eman zen, Lehiaren Euskal Agintaritzaren jardun-eremuetan prestatzeko bekak esleitzen dituen; zehazki, eskatzaileetako bati eman zitzaion beka.

Bekadun hori uneotan bertan ari da praktikaldia egiten LEAren egoitzan, eta emaitza oso positiboa izaten ari da bi aldeentzat. Praktikaldia 2022ko abenduan hasi zen eta 2023ko ekainean amaituko da. Praktikak egiten ari den bekaduna ikasteko interes handia



erakusten ari dela egiaztatzen ari da LEA, bai eta probetxu benetan aipagarriarekin ari dela lanean.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2023rako Aurrekontu Orokorraren Legean 5.780,00 euroko ordainketa-kreditua esleitu da 2023rako, eta 12.500,00 euroko konpromiso-kreditua 2024rako, LEAren 6115. programako dirulaguntzei buruzko 4. kapituluan (PEP 2023/000441).

Egindako balorazioa eta lortutako emaitzak ikusita, LEAren ustez interesgarria da sustapen-lan horrekin jarraitzea eta prestakuntza-programaren beste deialdi publiko bat egitea LEAren eginkizun propioei dagozkien eremuen gaineko prestakuntza teoriko-praktikoan sakondu nahi duten goi-mailako unibertsitate-tituludunentzako.

Beraz, efikazia eta efizientzia hobetzeko eta publikotasunaren eta gardentasunaren mesedetan, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko otsailaren 2ko 1/2012 Legearen 9. artikularekin bat, Lehiaren Euskal Kontseiluak honakoa

II. ERABAKITZEN DU

LEHENENGOA: Lehiaren Euskal Agintaritzaren 2023ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzea, eta honako akordio honen eranskin moduan jasotzea.

BIGARRENA: Akordio hau publiko egitea dagozkion bitarteko ofizialen bidez, eta edonola ere, Lehiaren Euskal Agintaritzaren webgunean: <https://www.competencia.euskadi.eus/>.

ERANSKINA

Lehiaren Euskal Agintaritzaren 2023ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa.

II.- Sarrera

Honako Plan Estrategiko hau LEAek Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko otsailaren 2ko 1/2012 Legearen bidez (Lehiaren Euskal Agintaritza sortzen baitu) esleituta dituen eginkizunak betetzeko jarraitutako politikaren plangintza-tresna gisa eratzen da.

Lehiaren Euskal Agintaritzaren helburu orokorra merkatuko lehia askearen eta gardentasunaren baldintzak sustatu, bermatu eta hobetzea da, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren jarduera ekonomikoek dagokienez. Horretarako, zenbait eskumen baliatuko ditu, hain zuzen ere, zehatzeko, sustatzeko, aurkaratzeko, irizpenak emateko, kontsultatzeko eta arbitratzeko eskumenak.

Lehiaren Euskal Agintaritzaren 2018-2022 aldirako plan estrategikoaren helburuetako bat lehia sustatzea zen. Lehiaren kultura sustatzeko, hainbat jarduera aurreikusten zituen, besteak beste, unibertsitateekin kolaboratzea, bekak ematea eta lehiaren defentsako ikerlanen deialdia.



Halaber, LEAren 2023ko Ekintza Planak erakundearen helburuen artean jasotzen du profesional gazteekiko konpromisoa sendotzea, bai praktikak egiteko programaren bitartez, bai prestakuntzako eta ikaskuntzako aukerak eskainiz.

Jarduera horiek helburuak lortzeko eraginkorrak direla egiaztatu da, eta, orobat, Lehiaren Euskal Agintaritzak instituzio akademiko nahiz graduondoko ikasleen aldetik jasotako eskaerei emandako erantzuna dira.

2021eko ekitaldian egin zen ,lehenengo aldiz, prestakuntza-beken deialdi publikoa, sei eskaera jaso ziren, eta, hautaketa-prozesuari buru emateko, Lehiaren Euskal Agintaritzaren lehendakariaren 2021eko urriaren 1eko Ebazpena eman zen, Lehiaren Euskal Agintaritzaren jarduera-eremuetako prestakuntza-bekak esleitzen dituen; zehazki, bi eskatzailek jaso zuten beka, hiru hilabeteko prestakuntza-aldi baterako.

2022ko ekitaldian, LEAk prestakuntza-beken deialdi publikoa egin zuen bigarren aldiz, Lehiaren Euskal Agintaritzaren jarduera-esparruko prestakuntza-beken oinarriak eta deialdia publiko egiteko Lehiaren Euskal Agintaritzako lehendakariaren 2022ko irailaren 26ko Ebazpenaren bidez.

Bost eskaera jaso ziren, eta, hautaketa-prozesuari buru emateko, Lehiaren Euskal Agintaritzaren lehendakariaren 2022ko azaroaren 30eko Ebazpena eman zen, Lehiaren Euskal Agintaritzaren jardun-eremuetan prestatzeko bekak esleitzen dituen; zehazki, eskatzaileetako bati eman zitzaion beka, zazpi hilabeteko prestakuntza-aldi baterako.

Orain arteko bekadun guztiek LEAren egoitzan bertan egin dituzten praktikak, eta esperientzia oso positiboa izan da bai erakundearentzat bai bekaduntzat beraientzat. Praktikak egin dituzten bekadunek ikasteko interes handia erakutsi dutela egiaztatu du LEAk, bai eta probetxu benetan aipagarriarekin aritu direla lanean. Horren erakusle, 2021ean LEAri entregatutako azken txostenean, bekadunek beraiek praktikaldiaren balorazio oso positiboa egin eta ikasteko eskaintako aukera eskertzen dute. Uneotan bekadun bat ari da LEAren egoitzan praktikaldia egiten, eta emaitza oso positiboa izaten ari da bi aldeentzat. Praktikaldia 2022ko abenduan hasi zuen eta 2023ko ekainean amaituko du.

Lehiari buruzko prestakuntza jasotzeko interesa eta eskari soziala ikusita eta lehen bi beka-deialdien emaitzak ebaluatuta, aukerak eta baliabideak aztertu dira –giza baliabideak, praktikaldia LEAko langileen ohiko jardunbidean ez dadin izan eragozpen; baliabide materialak, prestakuntza agintaritzaren egoitzan egin ahal izateko lan-eremu egokiak izateko; eta baliabide ekonomikoak–, eta erabaki da curriculumaz kanpoko prestakuntza-praktiken beste deialdi publiko bat egitea Lehiaren Euskal Agintaritzan.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2023rako Aurrekontu Orokorren Proiektuan 5.780,00 euroko ordainketa-kreditua esleitu da 2023rako, eta 12.500,00 euroko konpromiso-kreditua 2024rako, LEAren 6115. programako dirulaguntzei buruzko 4. kapituluan (PEP 2023/000441).



Plana egiteko, beraz, hauek hartu dira kontuan: xedeko interes publikoa eta aipatutako aldirako baliabide erabilgarriak, betiere efikazia eta efizientzia hobek bermatzearren, eta jarduna are gardenagoa izatearren.

Edonola ere, ohartarazi behar dugu Plana programatikoa dela eta, beraz, planaren edukiak ez duela eskubide eta betebeharririk sortzen. Abiarazten diren dirulaguntza-ildoen arabera izango da Planaren eraginkortasuna, eta, beste alderdi batzuen artean, ekitaldiko aurrekontuari begiratu beharko zaio.

II. Planaren eremu objektiboa, instituzionala eta iraupena.

Plana sailaz azpiko mailakoa da, eta Lehiaren Euskal Agintaritzak emango dituen dirulaguntzak soilik hartzen ditu barnean. Ogasun eta Ekonomia Sailari atxikitako erakundea da agintaritzza, eta Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko Legean (1/2012, otsailaren 2koan, zeinaren bidez Lehiaren Euskal Agintaritzza sortu baitzen) ezarritako eginkizunak bete behar ditu.

Curriculumaz kanpoko prestakuntza-beken dirulaguntzen deialdia egitea aurreikusi da, lehiako ikasgaiekin eta agintaritzaren eginkizunekin lotura duten adarretako goi-mailako tituludunei zuzendua. Diru kopuru bat jasoko dute hileroko, eta alta emango zaie Gizarte Segurantzari, indarrean den araudi aplikagarriari jarraikiz.

Prestakuntza-praktika horiek agintaritzaren egoitzan egingo dira (Ertzila 4, 2. solairua, Bilbo).

Denbora-esparruari dagokionez, Planak 2023/2024 ikasturterako aurreikuspenak jasotzen ditu, eta, beraz, aurrekontu-konpromisoa aurrekontu-ekitaldi bakarrekoa baino handiagoa da.



ARDATZ ESTRATEGIKOA: LEHIAREN KULTURAREN SUSTAPENA

Helburu estrategikoa <i>Lehiari eta Lehiaren Euskal Agintaritzaren egitekoei buruzko prestakuntza ematea unibertsitate-tituludunei</i>				
Dirulaguntzen lerroa <i>Bekak</i>				
Organoa <i>Lehendakaritza</i>				
Programa <i>6115 - Lehiaren Euskal Agintaritza</i>				
Helburuak, ekintzak eta adierazleak <i>Helburua: Lehiari eta Lehiaren Euskal Agintaritzaren egitekoei buruzko prestakuntza ematea unibertsitate-tituludunei</i> <i>Ekintza: Prestakuntza</i> <i>Adierazlea: Prestakuntzako ordu kopurua: 900 ordu bekaduneko</i>				
Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa publiko osoarekiko finantzaketa-ehunekoa				
Guztira 4. kapitulua	2023		2024	
	Zenbatekoa eurotan	Ehunekoa	Zenbatekoa	Ehunekoa
	5.780	100	12.500	100
Helburuko sektoreak Lehiaren Euskal Agintaritzaren jardun-arloei buruzko ezagutza teoriko-praktikoan sakondu nahi duten goi-mailako unibertsitate tituludunak.				
Emateko prozedura: Urteroko deialdi publikoaren ebazpena. Lehia-prozedura; deialdian ezarritako balorazio-irizpideen arabera aztertuko dira eskaerak.				

